

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

**Enpresa hau aurrera eramateko, hainbat elementu garrantzitsu beharko ditugu. Garrantzitsuenak ekoizpenerako baliabideak dira eta hau gure makina eta langile taldeak osatzen dute. Fabrikan lan egingo duten langileak ez dira oso kualifikatuak izan beharko, baina egia da mekanikaz zertxobait ikasi beharko dutela lanean hasi baino lehen. Baliabideak erabiliz, gure produktua sortuko dugu, baina gure produktua saltzeko eta ezaguna egiteko, marketin lanak egin beharko ditugu.**

**Lehen aipatutako marketin lanak irratsaioetan eta telebistan iragarkia eginez eta leku publikoetan gure albisteak poster moduan jarritz egingo ditugu. Horrez gain, saltzaile komertzial bat edukiko dugu, kanal ezberdinekin kontaktua mantendu eta harremanak estutzeko.**

**Bukatzeko, ikerketa saila ere gure baliabide garrantzitsua da. Hainbat langile edukiko ditugu I+G+b sailean lanean gure produktuaren etengabeko berrikuntza garrantzitsua delako gure enpresa lehiakideen artean beti goian mantentzeko. Gure enpresak beti teknologia berrienetan lehenengoa izannahi du eta beste enpresak baino lehen atera nahi ditu teknologia berriak merkatura..**